

1. BALIO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean, bakardadeak eta ongizate emozionalaren gabeziak eragin handia dute, bereziki adinekoengan. Aldi berean, txakurren jabe askok zailtasunak dituzte beren maskotak denbora tarte jakin batzuetan zaintzeko, eta adopzio-elkartek etengabeko lana dute egoera hauei aurre egiteko eta adopzio arduratsua sustatzeko. Testuinguru horretan sortzen da gure proiektua: adinekoen ongizatea, txakurren zaintza eta adopzio arduratsua elkartzen dituen ekimen berritzailea.

Proiektuaren helburua da adinekoek lagun egiten dieten txakurrekin topo egiteko espazio segurua sortzea, ongizate emozionala eta gizarteratzea bultzatuz. Aldi berean, txakurren jabeek leku fidagarri eta profesional bat izango dute beren maskotak aldi baterako uzteko, eta adopzio-elkartek aukera izango dute haien lana ezagutzera emateko, sensibilizazioa handitzeko eta adoptatzaile potentzialak erakartzeko.

Ekimen honek hiru alde nagusi lotzen ditu elkarren onurarako, direnak:

- **Adinekoek konpainia**, afektua eta bizi-kalitate hobea jasotzen dute.
- **Txakurrek arreta**, sozializazioa eta ingurune aberasgarria izaten dute.
- **Jabeek** espazio seguru bat lortzen dute haiekin ezin direnean egon.
- **Elkartek segurtasuna**, laguntza eta gizarte-inpaktu positiboa lortzen dute.

Horrela, proiektu honek balio sozial handiko espazio bat eskaintzen du, komunitatea indartzen duena eta pertsonen zein animalien ongizatea erdigunean jartzen duena.

2. MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Proiektu honen arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da xede-bererora behar bezala identifikatzea eta segmentatzea. Horretarako, hainbat bezero mota zehaztu dira, bakoitzak dituen behar, motibazio eta ekarpen espezifikoak kontuan hartuta. Segmentazio honek aukera ematen du zerbitzuak modu eraginkorrean egokitzeko, esperientzia pertsonalizatuagoa eskaintzeko eta proiektuaren balio sozial eta funtzionala indartzeko.

BEZERO MOTA	ZERGAITIK DA GARRANTZITSUA PROIEKTUAN
AGUREAK	Agureak dira bakarrik ez sentitzeko joaten direnak (beren familiako pertsonak edo haien kabuz hurbildu ahalko dira), denbora pasatzera edo, nahi izanez gero, egun-pasa egitera, txakurren eta zentroko espezialisten konpainiarekin.
ADOPTATZAILEA (Agureak izan daitezke)	Txakurrak adoptatzeko nahia dute, haien pertsona arruntak izan daitezke, edo Txakurrekin zentroan dauden agureak berak, mundu guztiak du txakurrak adoptatzeko aukera.
“ADE” Animaliak Defentsarako Elkartea	Animalien babesleak emandako txakurrak bi arazoirengatik daude, agureei bakarrik ez sentitzen laguntzeko eta adoptatuak izateko
TXAKURREN JABEAK	Jabeek beren maskoteei eskaintzen zaien zaintza bereziak jasotzeko aukera izango dute, hala nola paseoak (adoptatzeko prest dauden txakurrekin batera), ile-apaindegi zerbitzuak edo egonaldi labor bat...

Esan bezala, Gure proiektua adineko pertsona bakarti eta afektu-beharrak dituztenei zuzenduta dago, animalien konpainiaz gozatzeko eta ongizate emozionala hobetzeko gune baten bila dabilzanei.

Halaber, txakurren jabeek zuzentzen zaie, beren maskotak leku seguru, sozial eta fidagarri batean utzi nahi dituztenei, baita adopzio-elkarte eta adoptatzaile potentzialei ere, adopzio arduratsua eta gizatiarra sustatzeko interesa dutenei.

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, laguntza behar du eta sozietate hauek ezinbestekoak jo ditugu hori lortzeko: albaitari, etologo, komunikazio-agentzia, adopzio-elkarte eta boluntarioak. Animalien zaintza eta jokabideari, kudeaketa, lege-arlo, eta komunikazio/marketin estrategiei dagokienez profesionalak direlako.

Elkarlana jarraitua eta elkarren onurarako izango da: Txakurren jabeek egun osoan, edota tarte motz batean, maskotak utzi ahal izango dituzte diru-sarrera bat ordainduta, eta adopzio-elkarteek, adinekoek eta profesionalak beren ekarpena egingo dute, konfiantza eta koordinazio sendoan oinarrituta.

Horrela, alde guztiek irabazten dute: adinekoek ongizate emozionala eta konpainia jasotzen dute, txakurrek arreta eta sozializazioa, jabeek segurtasuna, eta elkarrekin adopzio arduratsua sustatzen dute, proiektuaren jarraikortasuna eta gizarte-balioa bermatuz.

Sozietate hauen interes eta onura orokorrak bermatzeko, proiektua behar bezala egokitutako hainbat espaziotan antolatuko da:

- Espazio nagusian taberna edo kafetegi bat kokatuko da, adineko pertsonak txakurrekin egoteko, tailerretan parte hartzeko edota elkargune sozial gisa erabiltzeko aukera izan dezaten.
- Halaber, kanpo-gune egokitu bat aurreikusten da, animalientzako espazio gisa eta hainbat jarduera eta dinamika gauzatzeko.
- Txakurrentzako egonleku espezifiko bat ere diseinatuko da, haien zaintza, atsedena eta ile-apaindegia zerbitzuak modu egokian eskaintzeko.
- Azkenik, sarrera nagusian harrera- eta administrazio-gune bat egongo da, informazio-puntu gisa jardungo duena eta proiektuarekin lotutako kudeaketa eta administrazio-lanak zentralizatzeko balioko duena.

4. DIRU- SARRERAK

Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko, funtsezkoa da bezeroak eskainitako zerbitzu eta produktuen truke zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden jakitea. Alderdi horrek zuzenean eragiten du diru-sarreraren egiturari eta prezio-politikan. Hori kontuan hartuta, diru-sarrerak bi multzotan banatu dira: alde batetik, proiektua martxan jartzeko beharrezkoak diren hasierako diru-sarrerak; eta, bestetik, jardueraren egunerokotasunean sortuko diren diru-sarrerak.

Hasiera bateko diru-sarrerak

NORK	ZER	ZENBAT
Bizkaiko Foru Aldundiak	Enpresa berrien martxan jartze laguntzak	15.000 € arte
Ekintzaile Programa 2025 (SPRI)	Proiektu ekintzailera garatzeko laguntza	30.000 € arte, itzuli gabe
Autonomo berrientzako laguntzak	Autoenplegu laguntzak	5.000 € - 15.000 €
Gizarte Eskubideen Ministerioa	Animaliak babesteko erak zio-irizpideen arabera.	10.000€ INGURU
Bilboko udala	Komunitateari mesede egiten dioten proiektuei dirulaguntzak edo laguntza logistikoa eskain diezaiekete, batez ere gizarte-eta animalia-ongizateko arloetan.	Aldakorra

Hileroko diru-sarrerak

ZERBITZUA	ZENBAT
Ile-apaindegia	25-50€ inguru
Egonaldia	40€ (egun bakoitzeko)
Tailerrak	5-10€ inguru tailerraren arabera
Albaitaria/etologoa	30-50€ inguru zerbitzuaren arabera
Produktuak	5-25€ inguru produktuaren arabera
Bono bereziak	20/egunean-200€ bonoaren prestazioen arabera: Bonu batzuek ile-apaindegi zerbitzua edo bestelako zerbitzu osagarriak dituzte barne, eta horrek prezioa handitu dezake.

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Proiektua ezagutarazteko komunikazio-kanal desberdinak erabiliko dira, publiko mota desberdinetara iristeko. Webgune baten bidez proiektuaren funtzionamendua azalduko da, izen-emateak eta erreserbak egiteko aukera emanaz. Sare sozialek presentzia aktiboa izango dute eguneroko jardura erakusteko, eta kartelen bidez sustapenak eta eskaintzak zabalduko dira. Telebista eta irratia, berriz, bereziki adinekoengana iristeko erabiliko dira, ahoz ahokoarekin batera.

KANAL MOTA	ZELAN	NORENTZAKO
SARE SOZIALAK	Agureen esperientzia eta argazkiak argitaratuz.	Agureen familia gazteentzako (ilobak, semeak...)
KARTELAK	Jubilatuaren etxeetako iragarki-taula, kiroldegietan, kulturetxetan, tabernetan	Agureen familia gazteentzako (ilobak, semeak...)
TELEBISTA ETA IRRATIAN	Iragarkiak eginez	Agureentzako eta familia gazteentzako

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Proiektuan bezeroekiko harremana modu hurbil, moderno eta profesional batean eraikiko da, horretarako, gure bezero motak dituen beharrak kontuan hartuko ditugu, eta hauetara gure zerbitzuak eta lokala egokitu. Bezero berriak sare sozialen, webgunearen, irudi erakargarrien eta ekintza berezien bidez (promozioak, zozketak, laginak edo ekitaldi txikiak) erakarriko dira. Helburua lehen inpresio positiboa ematea da, konfiantza eta arretazko zerbitzua transmitituz, gero bezero hauek mantendu ahal izateko.

Aldi berean, bezero nagusi hauentzako modu tradizionalago baten bidez mantenduko da harremana, adibidez, kartelak jarritz, lokaletik gertu dauden herri eta hiriko leku publikoetan batez ere, hauetatik egoten direlako, adibidez: tabernetan, kaleetako iragarki-tauletan, kulturetxeetan, kiroldegietan edo udaletxeetan esate baterako. Beste alde batetik, esandako moduan, haientzako ohikoak diren komunikabideetatik "kontaktua" mantenduko dute, batez ere, telebistako iragarkietatik, egunkarietatik eta irratiaeren bidez.

Behin bezeroa proiektuarekin kontaktuan egon ondoren, harremana mantentzeko newsletterrak, eduki interesgarria eta deskontu edo sari-sistemak erabiliko dira, bezeroa berriro itzultzea sustatzeko. Aldi berean, iritziak eta iradokizunak jasoko dira galdetegi, sare sozial, email edo aurrez aurre bidez, zerbitzua hobetzeko eta komunitate sendo bat sortzeko. Jarduteko moduak hurbiltasuna, fidagarritasuna eta nortasun propioa transmititu nahi ditu.

7. FUNTZEZKO BALIABIDEAK

Gure funtsezko baliabideak mota ezberdinetakoak dira, baina guztiak zentro egokia, animalien eta pertsonen zaintzan trebatutako langileak, eta hasierako finantza-laguntzak proiektua martxan jartzeko balioko dute.

Honekin batera, baliabide hauetako batzuk, kanpoko laguntzetatik lortuko dira, tabernaren kudeaketa eta ustiapena edo monitore batzuen kontratazioak adibidez, kanpoko enpresa batek egingo ditu, hauekin kolaborazio antzerako bat egingez. Eredu horri esker, proiektu hau hain garestia ez izatea lortuko dugu gure onurarentzat, eta aldi berean, kanpo-operadoreek beren markaren ikusgarritasuna eta presentzia indartu ahal izango dute espazioaren barruan, alde guztientzat onuragarria den lankidetzaren esparru batean.

Horiez gain, behar ditugu komunikazio baliabideak eta eguneroko materialak (janaria, higiena, jolasak). Baliabide hauek udal, elkarte eta babesleen lankidetzarekin erabiliko dira, adinekoei eta txakurrei ongizate emozionala eta soziala eskaintzeko, proiektuaren iraunkortasuna bermatuz.

Ondorengo taulan zehazten dira gure proiektuak arrakasta izan dezan funtzezkotzat ditugun baliabide ukigarri eta ukiezinak adierazten dira:

BALIABIDE MOTA	DESKRIBAPENA	NORK ETA NONDIK	NOLA ERABILIKO DA
Baliabide Fisikoak (materialak)	Lokala, barnealde eta kanpoalde seguruak, jolas eta zaintza espazioak	Udal laguntza edo alokairua	Txakurren zaintza, jarduerak eta adinekoentzako gune soziala
	Janaria, higiene produktuak, jolas tresnak, bulego-materiala	Hornitzaile lokalak	Eguneroko jarduera eta arreta
Giza baliabideak	Zaintzaileak, albaitaria, etologoa, administraria	Kontratazioa edo boluntarioritza bidez	Maskoten eta adinekoren arreta, kudeaketa eta koordinazioa
Baliabide intelektualak	Animalien zaintza, portaera, komunikazio soziala	Aditu profesionalen bidez	Prestakuntza, protokoloen diseinua eta kalitatearen jarraipena
Finantza baliabideak	Dirulaguntzak, babesle pribatuak, ordainketak	Foru-aldundiak, udalak, bezeroak	Hasierako inbertsioa, soldata eta gastuak estaltzeko

8. FUNTZEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduerak dira txakurren eta adinekoen zaintza, zerbitzuaren eguneroko kudeaketa, eta komunikazio soziala, proiektua ezagutarazteko eta erabiltzaile berriak erakartzeko. Horrez gain, adopzio-elkartekin eta udalekin lankidetzak etengabea mantenduko dugu. Ondorengoko taulan aurkezten ditugun jarduerak dira gure proiektuaren oinarria eta arrakastaren giltza, ongizate emozional eta soziala sustatuz.

JARDUERA NAGUSIA	ARDURADUNA	MAIZTASUNA	HELBURUA
Kudeaketa eta antolaketa	Administratzailea	Egunero	Zerbitzuaren funtzionamendu egonkorra
Txakurren eta adinekoen zaintza	Zaintzaileak/boluntarioak	Egunero	Maskoten eta adinekoen arreta, kudeaketa eta koordinazioa
Lankidetzak elkartekin eta udalekin	Talde osoa	Hilean behin	Aliantzak sendotzea eta ekimen berriak sortzea
Komunikazioa eta publizitatea	Komunikazio arduraduna	Astean behin	Proiektua ezagutaraztea eta bezeroak erakartzea
Adopzio- eta sentsibilizazio-kanpaina	Talde osoa	Urtean pare bat aldiz	Adopzio arduratsua eta gizarte-sentsibilizazioa sustatzea

9. KOSTU EGITURA

Gure proiektuak hasierako inbertsio txikia behar du, batez ere materialetan eta inprimaketan. Kostu finkoak oso txikiak dira (webgunea eta softwarea), eta gastu gehienak aldakorrak izango dira zerbitzu-ekoizpenaren eta promozioaren arabera.

Kontuan hartu beharrekoa da ere, proiektu honetan ez dugula alkilerreko gasturik izango, espazioak kolaborazioen bitartez lortzeko helburua dagoelako, aldi berean, ez da hasierako inbertsio handirik egongo, ezta lan egiteko orduan makina berezirik erabili behar, zerbitzu pertsonalizatu bat denez, etorkizunean etorriko dira kostuak, zenbat eta bezero gehiago, azetu beharreko nahi gehiago aurkituko ditugulako.

Dirua lortzeko, aurre-salmentak eta sare sozialetako promozioak erabiliko ditugu, eta taldeko kide batek gastuen kontrol ekonomikoa eramango du. Helburua da kostuak modu eraginkorrean kudeatzea eta diru-sarrerak handitzen joatea proiektua handitu ahala.

KOSTU MOTA	GASTUAREN IZENA	MAIZTASUNA	ZENBATEKOA
Finkoa	Web Hosting-a	Hilean	8-12€
Finkoa	Software lizentziak	Hilean	20-30€
Aldakorra	Inprimaketak	Hilean behin	3-10€ unitateko
Aldakorra	Sare Sozialetarako lizentziak	Astean behin	20-100€
Inbertsioa	Ekitaldien Stand-a	Behin	50-200€
Inbertsioa	Materialak produktuak sortzeko	Behin	30-150€